

[susa](#) | [literaturaren zubitegia](#) | [literatur emailuak](#) | [armiarma](#) | [klasikoak](#) | [aldizkarien gordailua](#) | [basquepoetry](#) | [euskarari ekarriak](#)



[kritiken hemeroteca](#)

7.423 kritika

- [Honi buruz](#)
- [Bilaketa](#)
- [Hasiera](#)

Azken kritikak

« [Iraganari iskin egiteko ezintasuna](#) | [Leku eta une bat, hamaika kontu](#) »

Balou mendikateko balada / [Yan Lianke](#) (*Maialen Marin / Aiora Jaka*) / Elkar, 2018

Mitotik haragokoak Joannes Jauregi / *Berria*, 2018-07-01

Txinako literatura hutsune nabari bat da euskarara itzultakoen artean, Maialen Marin-Lacarta itzultzaileak esana duen bezala; apenas dagoen ezer euskaraturik munduan hiztun gehien dituen lehen hizkuntzatik. Horregatik, oso garrantzitsua da Aiora Jaka Irizarrek eta Marin-Lacartak egin duten ekarpena, bai 2013an Mo Yan Nobel sariduna euskaratu zutenean, bai Yan Liankeren *Balou mendikateko balada* euskaratu duten honetan ere. Azpimarratzekoa da, gainera, zuzenean itzultzen dutela txineratik, zubi hizkuntzarik gabe; hori esanda ez dut erdeinatu nahi zubi hizkuntzekin lan egiten duen ezein itzultzaile, zeinak ez baitira gutxi gure artean, eta lan benetan finak eta beharrezkoak egin baitituzte. Nolanahi ere, garrantzitsua iruditzen zait txineratik zuzenean itzultzea, ez jatorrizko hizkuntzari fidel izatearren, baizik eta gure inguruko ohiko hizkuntzen morrontzatik askatze aldera, hartara ez dezagun betiko hizkuntzetatik itzuli beti.

Oraingo nobela honek, gure literatura itzuliari ekarpen berebizikoa egiten dion arren, leku txikia du egilearen obran, nobela laburra baita, eta ez baita egileak jaso dituen sari ugarien erantzule. Argumentuaren erdian You familiako lau seme-alabak ditugu, zeinek nolabaiteko eritasun mental bat baitute. Ordea, istorioaren benetako protagonista haien ama da, nobelan ahaleginak eta bi egiten dituena, seme-alabenganako tratu txarrak gorabehera, haiek aurrera ateratzeko. Istorioa landa eremuan girotua dago, eta paisaiaren eta giroaren laztasuna bat dator familiaren istorioaren gordinarekin. Nobela osoan, Liankek ipuin mitikoen zenbait ezaugarri josten dizkio kontaera errealista samar bati, berak *mitoerrealismo* deitzen duen estiloan: ia madarikazioak diren gaixotasunak, ametsak, elementu fantastikoak... Badirudi Lianke elezahar bat kontatzen ari zaigula, hala tonuan nola istorioan bertan, baina, kontaera berezi horren bitartez, esplizituki sekula aipatzen ez duen egitura sozial bat papereratzen du. Zeharka haztatzen du errealtatea, elementu errealistekin bainoago kutsu mitiko batekin, eta halarik ere ukazina da nolabaiteko gizarte erretratu bat aski distortsionatua bada ere taxutzen ari zaigula, edo zirrimarratzen, bederen. Ez dakit zehazki *mitoerrealismoa* horretan datzan ala ez, baina, edonola ere, txalotzeko modukoa iruditzen zait Liankek nola lortzen duen, teorizazio propio horren bitartez, ikuspuntu sozial bat txertatzea bere estetika pertsonal ezin bereziago horretan.

Mitoerrealismo hitza buruan bueltaka izanda, saihetsezina da nobela hau irakurri ahala beste zerbaite ere gogora etortzea: errealismo magikoa. Ez naiz ausartzen itxuraz behintzat hain urrunak diren bi hitz horiek zuzenean lotzera, baina nago ezen, Mendebaldeko irakurlearentzat behintzat, Hego Amerikako oihartzun horiek oso agerikoak direla. Esate baterako, iruditu zait heriotzaren gaiak —nobelan hilek daukaten presentzia korporalak, bai eta hilen eta bizien arteko lotura intimoak eta muga lausoak ere— oso gertutik jarraitzen diola Juan Rulforen *Pedro Páramo*-ri. Halaber, distantziak distantzia, ezin aipatu gabe utzi, irakurleak atrebentzia barkatuko badit, ezen landa eremuaren deskribapenetako asko ia Joan Mari Irigoienen *Babilonia* ederretik atereak iruditu zaizkidala, paisaiaren karga sinbolikoa istorioarekin josteko eragatik.

Azken kritikak

[Trikua esnatu da](#)

[Lorea Agirre / Idurre Eskisabel](#)

Irati Majuelo

[Feminismoa % 99ren alde](#)

Askoren artean

Amaia Alvarez Uria

[Lurra eta dardara](#)

Askoren artean

Igor Estankona

[Miñan](#)

[Amets Arzallus Antia](#)

Javier Rojo

[Poesia kaiera](#)

[Louis Aragon](#)

Joannes Jauregi

[Arimaren etorkizuna. Estandar emozionalaren sorrera](#)

Eva Illouz

Ibai Atutxa Ordeñana

[Iturria](#)

[Unai Elorriaga](#)

Estibalitz Ezkerra

[Bazterreko ahotsak](#)

[Miren Tirapu Goikoetxea](#)

Javier Rojo

[Izendegi hutsa](#)

[Fito Rodriguez](#)

Mikel Asurmendi

[Naufragoen altzoa](#)

[Gorka Setien](#)

Igor Estankona

[Etxeak eta hilobiak](#)

[Bernardo Atxaga](#)

Ibon Egaña

[Amua](#)

[Aritz Gorrotxategi](#)